

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

#### **Peñacerrada-Urizaharreko udal gimnasioaren erabilera arautzen duen ordenantza behin betiko onartzea**

Korporazioaren Osoko Bilkurak 2021eko abuztuaren 3an hartutako Peñacerrada-Urizaharreko udal gimnasioaren erabilera arautzen duen ordenantza onartzeko hasierako akordioa jendarean jartzeko epea igaro ondoren eta horren barruan ez da araudiaren inguruko erreklamaziorik aurkeztu, akordioa behin betiko izatera igotzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua arabera.

Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

#### **PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDAL GIMNASIOAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

##### 1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

###### **1. artikulua**

Udal-gimnasioa jabari publikoko ondasuna da, eta zerbitzu publikorako erabiltzen da. Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko erabilera anitzeko eraikinean dago, Barón de Benasque kaleko 14. zenbakian, Urizaharrean.

###### **2. artikulua**

Ordenantza honen xedea da udal-gimnasioko instalazioak behar bezala erabiltzeko arauak ezartzea, gimnasioko erabiltzaileen eta Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko gainerako bizilagunen onerako izango direnak.

###### **3. artikulua**

Instalazioen ordutegia 6:00etatik 22:00etara izango da, astelehenetik igandera, urteko egun guztietan. Hala ere, Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko diren bandoen bidez, gerta daitezkeen aldaketen berri emango da; besteak beste, instalazioak ixteko aukeraren berri, osasun larrialdiaren deklarazioa dela edo Udalak, arrazoituta, egokitzat jotzen dituen beste inguruabar batzuk direla.

##### 2. KAPITULUA. GIMNASIOKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

###### **4. artikulua. Kudeaketa arauak**

Arau hauek zuzentzen dituzte gimnasioko instalazioak:

1. Gimnasioa irekita egongo da urteko egun guztietan, 6:00etatik 22:00etara.

2. Gimnasioko instalazioak erabiltzea ahalbidetzen duen txartel pertsonala eskuratu ahal izateko, ordainduta egon behar da dagokion ordenantza fiskalean ezarritako dagokion tasa. Erabiltzaileek justifikatu beharko dute ordainketa hori Udalak izendatutako arduradunek hala eskatuz gero.

3. Erabiltzaileek instalazioak erabiltzeko arauak errespetatu beharko dituzte. Balizko urraketa baten aurrean dagokion zehapena aplikatuko da.

4. 14 urte baino gutxiagokoek ezingo dira gimnasioan sartu. 14 eta 18 urte bitarteko adingabeek gurasoen baimena beharko dute inskribatzeko.

5. Ekipamendua, altzariak eta abar uneoro errespetatu eta zaindu beharko dira, eta instalazioak beti garbi edukitzen saiatu beharko da. Erabiltzailearen batek kalteak egiten baditu nahita, eta kalte horiek egotzi ahal bazaizkio, sor daitezkeen kalteen konponketaren zenbatekoa ordaindu beharko du. Egotzi dakizkiokeen kalteen konponketa ordaintzeko betebeharra ordenantza honen arabera ezar dakizkiokeen administrazio-zehapenak alde batera utzita eskatu ahal izango zaio.

6. Esparruaren barruan ezin da erre, ezta jan ere, eta ezin da beirazko elementurik edo ebakitzen duen bestelako materialik sartu edo erabili.

7. Debekatuta dago gimnasioan edari alkoholodunak edo janaririk sartzea (barra energetikoak izan ezik...).

8. Udalak ez du bere gain hartuko gimnasioan gertatzen diren galera edo lapurreten erantzukizunik; beraz, komeni da baliozko objekturik ez eramatea. Era berean, ez da erantzule izango makinen eta udal-gimnasioko gainerako elementuen erabilera okerraren ondorioz erabiltzaileek izan ditzaketen lesioengatik.

9. Makinak erabiltzeko, nahitaezkoa da toalla erabiltzea.

10. Udal-gimnasioaren esparrura sartzeko, aldez aurretik ordaindu beharko da udal-gimnasioaren zerbitzua emateagatik tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzan ezarritako tasa.

11. Fidantza gisa, kuota ordaintzearekin batera, 10 euro ordainduko dira, instalazioetara sartzeko ahalbidetzen duen txartel magnetikoaren kostua estaltzeko. Erabiltzaileak baja kudeatzen duenean eta txartela egoera ezin hobean ematen duenean itzuliko da fidantza. Txartela itzultzen ez badu edo egoera txarrean badago, Udalak fidantza bahituko du.

12. Txartela galtzen bada, 10 euroko beste fidantza ordaindu beharko da hura ordezteko, eta hasieran ordaindutakoa galduko da.

13. Materiala bere lekuan utziko da erabili ondoren. Makinetan diskoak erabiltzen badira, kendu egin beharko dira eta berriro beren lekuan jarri.

14. Gimnasioaren gehieneko edukiera 8 lagunekoa da. Ezingo da gimnasia sartu gehieneko edukiera betetzen bada.

15. Jantzi egokiak erabili beharko dira (kamiseta eta/edo kirol-jertsea, kirol-galtzak edo txandala eta kirol-zapatilak). Debekatuta dago edozein jarduera kamisetarik gabe egitea.

16. Debekatuta dago kaleko oinetakoak erabiltzea. Kirol-zapatilak erabiliko dira.

17. Debekatuta dago animaliak gimnasia sartzea edo inguruan uztea gimnasia erabiltzen den bitartean.

Inskripzioa Udal bulegoetan egingo da, udal gimnasia erabiltzeagatik tasa arautzen duen Ordenantzan ezarritakoaren arabera.

### 3. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

#### 5. artikulua

Ordenantza honen arau-haustea izango da ordenantza honetan ezarritako betebeharrak edo debekuak guztiz edo partzialki ez betetzea.

## 6. artikulua

Zehatzeko ahala Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera burutuko da. Lege horrek arau-haustek haien larritasunaren arabera sailkatzen ditu, eta honako zehapen hauek ezartzen ditu:

- Arinak: 50 euro arte.
- Larriak: 51 eurotik 250 eurora.
- Oso larriak: 251 eurotik 500 eurora.
- Arau-hauste arinak:
  1. Beste edozein erabiltzaileri tratu desegokia ematea.
  2. Erabiltzaileentzat aurreko artikuluetan ezarritako betebeharren bat noizbehinka ez betetzea.
- Arau-hauste larriak:
  1. Aurreko artikuluetan ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
  2. Nortasunari buruzko datuak faltsutzea.
  3. Zehapen arinak behin baino gehiagotan egitea.
  4. Instalazioa hondatuko duten animaliak edo produktuak sartzea.
- Arau-hauste oso larriak:
  1. Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.
  2. Txartel pertsonala beste pertsona bati ematea instalaziora sar dadin.
  3. Instalazioko beste erabiltzaile batzuei eraso egitea.
  4. Gimnasioko instalazio eta ekipoei nahita kalte larriak eragitea.
  5. Gimnasioko materiala edo beste erabiltzaile batzuen gauzak lapurtzea.

Urtebetean 2 arau-hauste larri edo bat oso larri eginez gero, udal gimnasioaren erabiltzaile izaera galduko da, ezar daitezkeen zigorrak kontuan hartu gabe.

Kasu guztietan (falta arinak, larriak edo oso larriak), Udalaren diru-kutxan ondorio ekonomikoak eragiten dituzten arau-haustek eginez gero, Udalak egiten duen gastua ordaindu beharko du arau-hausleak, eta aurrez zehaztutako diru-zehapenak ezarriko dira.

## 7. artikulua

Zehatzeko ahala Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera burutuko da.

Zehapenak aplikatzerakoan, kontuan hartuko dira intentzionalitatea edo errepikapena egotea eta eragindako kalteen izaera.

## 8. artikulua

Ordenantza hau oso-osorik argitaratuko da ALHAOn, eta argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Peñacerrada-Urizaharreen, 2021eko irailaren 30ean

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*